

ZIRIAKO ORTIZ DE ZARATE

**77 URTE BETEKO DITU
EKAINEN. ARRATE
IRRATIKO ESATARI,
MAKINA BAT HERRI
KIROLETAKO GIDARI,
EUSKAL HERRI OSOKO
HERRI GEHIENETAN EGON
DA. EIBARREN JAIO ZEN
BAINA IA BIZITZA OSOA
ERMUAN EMAN DU.
NEKATU EZ BADA ERE,
ADINAK EZ DU
BARKATZEN ETA ASTIRO-
ASTIRO, HAINBAT
URTETAKO LAN MARTXARI
ATSEDENA EMATEA
ERABAKI DU. IRRATIAN
ASTEAN ZEHAR SAIO
GUTXIAGO EGINGO DITU
ETA HERRI KIROLN
ANTOLAKETAN
"EDOZEINI" LAGUNTZEKO
PREST AGERTU DA.**

- Herri kirolen esatari lanetan nola hasi zinen?

70eko hamarkada hasieran izan zen. Bertso eta trikitixa jaialdia zen Ermuan. Saioa hasita zegoen baina jendeak ez zion arretarik eskaitzen eta horrek, bertsolari eta musikarien egonezina sorrarazi zuen baita ikusle geunden beste batzuen ere. Haserre, jendartetik taulara joan eta han eman nuen jendaurreko nire

"Urte hauetako ibilbidea lasaitzeko garaia iritsi da"

lehen hitzalditxoa.

- Ondoren Arrate Irratira...

Ni lanean ari nintzen garai hartan. Euskal kantak eta gertaerak kontatzeko pertsona bat behar zutela iragarri zuen irratia. Aurkeztu nintzen eta geroztik 23 urte daramatzat bertan laguntzen.

- Orain arte egunero egin izan duzu herri kirol saioa irratian...

Hemen ere bizitzan bezalaxe, lagunartea ona behar izaten da eta nire kasuan horrela izan da. 2 orduko lana eskatu izan dit testua tolestatu eta egoki lantzeko.

- Aurrerantzean 3 egunez arituko zara astean zehar...

Adinean ere aurrera noa eta horrez gain, autoa hartu eta herriz herri ibiltzeko, indarra eta gogoia behar dira eta horiek ere agortu egiten dira.

- Egun arrunt batean zer egiten duzu?

Goizean 8etarako esnatu eta lehenengo gauza, egunkariak erosi. Ondoren, Arrate Irratiaren errekadutxo batzuk egin, pasiotxo bat eta eguerdi aldera jubiltetxean baztzen gara euskaldun koadrila bat. Gero bazkaldu eta normalean arratsaldeak etxean igarotzen ditut. Zerbait irakurri, musika lasaia ipiniz.

- Bete gabeko ametsen bat?

Ermuko probalekua berreskuratu ez izana, Euskal Herriko probleleku zaharrena estali eta behar den bezala ez jarri izana.

- Dohai bat izatea nahi, baina izan ez duzuna?

Idazteko erraztasuna izatea. 7 urterekin "Cara Sol" abesteari uko egiteagatik fraile eskolatik bota ninduten eta ez nuen ordutik idazteko aukerarik izan.

- Anekdotak bat...

Nafarroako herri txiki batean herri kirol jaialdi batean, esatari lanak egiten ari nintzela, aitonatxo bat hurbildu zitzaidan. Itsua zen, nire irati saioa entzule fina zen eta ahotsetik Ziriako nintzela ohartu



eta agurtzera etorri zitzaidan. Hunkigarria izan zen

- Abesti bat...

"Gernikako arbola"

- Herri kirolaririk onena...

Markinako Lehoia.

- Jose Antonio Gisasola "Zelai"

Pertsona eta kirolari bezala mundiala, seme bat izan da niretzat. Gogoan dut, San Antonio auzoko jaietan nola plazartzu zen aurreneko aldiz.

- Arrate Irratia...

Nire bigarren etxebizitza izan da. Oso gustora aritu naiz eta lagun asko ezagutzeko aukera eskaini dit.

- Pilotari haundiena

Buruz buru eta binaka, Migel Gallastegi eibartarra eta bere pare parean Julian Retegi "Retegi II"

- Urte guzti hauetako egun berezi bat...

Zeanurin, 100 urte bete berri zituen Maria Artetxe andrea elkarriketatu nuen eguna.

- Desio bat...

Azken urteotan Kanarietara joaten gara kirol erakustaldiak egitera. Primeran pasatzen ditugu hainbat egun eta hara joateko gogoia daukat.

Asier Ibaibarriaga

KIROL MEDIKUNTZA

indartu

ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK

- ESKUZ EGINDAKO VODDER DRENAJE LINFATIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net